

Industriako lehengaiak

Jarraipena

2021eko irailaren 30a



Ikuspegi orokorra

2021eko lehen seihilekoan, lehengaien prezioek gora egin zuten Txinako ekonomiaren susperraldi azkarragatik, eta txertoak merkaturatu eta mundu mailako ekonomia suspertu ondoren merkatuetan sortu diren igurikimen ekonomikoengatik. Bestalde, 2021eko gainerako hilabeteetan, petrolioaren prezioak goranzko bideari eutsiko dio, LPEE+ aliantzako kideek eskaintza murrizten jarraituko dutelako. Hala, uste da lehengaien prezioek gorantz jarraituko dutela hemendik eta 2021aren amaierara bitartean eta baita ere 2022an. Batez ere, kobrea bezalako metalak garestituko dira, bere eskaera handitu egingo baita gehiago inbertituko delako ibilgailu elektrikoetan eta beste industria “berde” batzuetan.

Lehengaien prezioak: adierazle garrantzitsuenen aurreikuspena

(Indizea USDetan, 1990=100; urtez urteko aldaketaren %)

	2020	2021	2022
WCF (World Commodity Forecast)	161,0 (% 2,9)	212,5 (% 32,0)	209,1 (% -1,6)
IRM (Industrial Raw Materials)	150,1 (% -3,2)	202,0 (% 34,6)	200,9 (% -0,5)
IRM: Metalak	163,3 (% -2,4)	232,0 (% 42,0)	232,5 (% -0,2)
IRM: Zuntzak	112,2 (% -5,2)	128,8 (% 14,8)	128,0 (% -0,7)
IRM: Kautxua	173,0 (% -5,2)	208,2 (% 20,3)	193,3 (% -7,1)

Oharra. WCF (World commodity forecasts) 22 lehengai biltzen dituen indize bat da. IRM (Industrial raw materials) The Economist Intelligence Unit-en prezio indize bat da, zeinetan metalak (altzairua, aluminioa, kobrea, eztainua, nikela, beruna, zinka, burdina) % 65,1eko pisua baitute, zuntzek (kotoia eta artilea) % 27,4koa eta kautxuak % 7,5koa. IRMk % 44,4ko pisua dauka WCF indizean.

Iturria: Basque Trade & Investment agentziak egina, The Economist Intelligence Unit eta Fitch Solutions-en informazioa oinarritzat hartuta

Nabarmendua:

- **Txinaren desazelerazioa gorabehera, lehengaien prezioek garestiak izaten jarraitzen dute**

2021eko lehen seihilekoan lehengaien mundu mailako prezioak asko igo ziren, maximo historikoetara iristeraino; urtearen bigarren erdian ere garesti jarraituko dute, munduko eskaera modu sostengatuan suspertzen ari delako eta hornikuntza-katea hainbat aldiz eten delako. Parte batera, hornikuntza-katea etetearen arrazoietakoa bat da koronabirusaren Delta aldaera hedatu egin dela, batez ere, Asian; izan ere, horrek itoguneak eragin ditu garraioan eta ondorioz aise konpentsatu da Txinako eskaeraren ahulezia.

- **Politika “berdeek” oinarritzko metalen eskaera bultzatuko dute**

Sektore gorakor garrantzitsuenek (ibilgailu elektrikoak barne) lehengaien eskaera handitu dute, eta beraz, prezioen gaineko presioa mantendu egingo da 2021-22 epealdian, metalen IRMaren hazkunde zenbatetsia % 42an kokatu delarik 2021ean (ikusiko goiko taula). Ibilgailu elektrikoaren sektoreko lasterketak eragina izango du kobrea bezalako metalen prezioan, kalkulatzeko baita % 4,4 gehiago igoko dela 2022an.

- **Aurreikusten da Brent upelaren prezioek goia joko dutela 2022an, gradualki jaisten hasi baino lehen**

Nahiz eta aurreikusten den petrolio-ekoizpena eguneko 2 milioi upelerraino igoko dela 2021aren amaierarako, kalkulatzeko da LPEE+eko herrialdeek zertxobait geldiaraziko dutela ekoizpen hori 2022an, Brent upelaren prezioek gorantz jarrai dezaten, urte horretan goia jotzeraino. Baina aurreikuspen horiek aldatu egin litezke Estatu Batuek petrolio gordinaren eskaintza nabarmen handitzen badute 2021eko bigarren seihilekoan.

Lehengaien prezioen proiektzioa banan-banan

Lehengaiak	2019	2020	2021	Bariazioa (uzt-ira)	2022	2023	2024	2025
Kautxua (USD/tn)	1864,00	1766,00	2125,00	44,00	1981,00	2015,00	2067,00	2100,00
Aluminioa (USD/tn)	1791,00	1702,00	2326,00	144,00	1939,00	1870,00	1900,00	1940,00
Kobrea (US zent/lb)	272,30	279,80	413,80	0,10	432,00	451,30	379,00	386,00
Nikela (USD/lb)	6,31	6,25	8,05	0,12	8,67	9,14	8,80	8,70
Zinka (US zent/lb)	115,60	102,60	128,40	-0,30	124,60	131,50	116,00	112,00
Burdina (USD/tn. lehorreko metri)	93,80	108,90	184,50	3,90	164,00	150,00	140,00	125,00
Altzairua (USD/tn)	501,50	486,50	792,50	18,50	703,80	667,50	597,00	610,00

Iturria: Basque Trade & Investment agentziak egina, The Economist Intelligence Unit eta Fitch Solutions-en informazioa oinarritzat hartuta



Lehengaien panorama

Aluminioa

- **Eskaera.** Aluminioaren eskaera murriztu egin zen hirugarren hiruhilekoan, baina iaz baino indartsuagoa izaten jarraitzen du. Kalkulatzen da aluminioaren mundu mailako eskaera % 7 haziko dela 2021ean, Estatu Batuetako eta Asiako BPGek hazkunde handia izango dutelako. Aluminio eskaera eskualde horietan haziko da gehien, manufaktura eta automobilgintza sektoreek bultzaturik. 2021eko lehen sei hilekoan izandako hornikuntza arazoak eta prezioen ezegonkortasuna direla medio, 2022rako hornikuntza eskaerak ohikoa baino askoz ugariagoak izan dira. Halere, uste da aluminioaren eskaera apalki haziko dela 2022an, % 3,5aren azpitik alegia. Kontuan hartzekoak:
 - Bigarren sei hilekoan, Txina berriro nagusi izan zen aluminioaren inportazio globaletan.
 - 2021ean ibilgailu eskaera hazi egin da Estatu Batuetan, eta horrekin batera baita ere aluminioarena.
- **Hornikuntza.** Uste da mundu mailako aluminio-ekoizpena % 3,2 haziko dela 2021ean (uste zena baino % 3,5 gutxiago), % 2,7 2022an eta % 3,5 2023an. Ziurrenik Txina izango da hazkunde esanguratsua izango duen herrialde bakarra, kalkulatzen baita ekoizpenak urteko % 4,8ko hazkundea izango duela 2021ean. Txinatik kanpo, aluminioaren ekoizpena askoz motelago haziko da (% 1 2021ean), prezioak asko igoko diren arren. Kontuan hartzekoak:
 - Mundu mailako aluminio-ekoizpena estankatua dago
 - Gineako estatu-kolpeak lehengaien hornikuntza-kateak eten ditzake, Gineak garrantzi handia baitu bauxita agregakinaren hornikuntzan
 - Txinako aluminio-ekoizpena murriztu egingo da bigarren sei hilekoan arazo elektrikoaren ondorioz
- **Prezioak.** Aluminioaren prezioak tonako 2.400 dolarretik gorakoak izan dira ekainaren amaieratik, eta badirudi hortik gora haziko direla hemendik aurrera. Kopuru horretatik gora, eragin handia dute prezioetan bai eskaintzaren gorabeherak, eta baita ere hornikuntza-katea eteteko arriskuak; horren erakusgarri da merkatuek Gineako estatu-kolpe militarri eman zioten erantzuna. Hain zuzen, prezioak tonako 2.745 dollarrera igo ziren irailaren 6an, 2008az geroztik izandako prezio ofizialik altuenera hurbilduz (2.772 dolar tonako).

Aluminioaren eskaera eta hornikuntza

Mila tona	2019	2020	2021	2022	2023
Ekoizpena	63265	64622	66702	68517	71011
Kontsumoa	64312	62417	66787	69147	71881
Balantzea	-1047	2205	-85	-630	-870

Iturriak: Basque Trade & Investment agentziak egina, WBMS, London Metal Exchange (LME), International Aluminium Institute (IAI) eta The Economist Intelligence Unit-en informazioa oinarritzat hartuta.

Kobrea

- **Eskaera.** Kalkulatzen da kobrearen kontsumoak gorantz jarraituko duela 2021-23 epealdian, jarduera ekonomikoa suspertzearekin batera. Zenbait eskualdetan atzeratu egin da Covid-19aren aurkako txertaketa, beraz, baliteke atzerapen horrek kobrearen kontsumo potentziala geldiaraztea aurreikusitako epean. Txinako urbanizazio plan ambiziozuek eta energia berriztagarrien azpiegiturretan egingo diren inbertsioek bultzada bat emango diote kobrearen kontsumoari. Horrez gain, Txinak inbertsioak egingo ditu Asiako beste toki batzuetan One Belt Road Initiative (BRI) ekimenaren bidez, eta inbertsio horiek ere gorantz bultzatuko dute kobrearen kontsumoa. Kontuan hartzekoak:
 - EB27ko BPGaren hazkunde suspertu egingo da 2021eko bigarren sei hilekotik aurrera, eta horrek eragina izango du kobrearen eskaeran
 - Muga berriak direla medio, murriztu egin da zertxobait Txinako BPGaren hazkunde aurreikuspena 2021erako, eta horrek esan nahi du kobrearen eskaera ere murriztu egingo dela urtearen azken hiruhilekoan
 - Koronabirusaren Delta aldaerak dagoeneko eragina izan du herrialde gorakorren suspertze ekonomikoan eta, beraz, baita ere eskaera globalean
- **Hornikuntza.** Uste da kobrearen mundu mailako ekoizpenak urteko % 2,2ko hazkundea izango duela 2021-2023 epealdian lehengaien eskuragarritasun handiagatik eta, kobrearen errekorreko prezioak direla medio, errentagarria delako lehen errentagarri ez ziren meatze batzuk martxan jartzea. Hala ere, galdategietako instalazio berrietan egingo diren inbertsioek (batez ere Txinan) ezingo dute konpentsatu azken hamar urteetako inbertsio eza, eta horrek eragina izango du metal birfinduen ekoizpen gaitasunean. Kontuan hartzekoak:
 - Pandemiak sortutako gorabeherak meatzetako ekoizpenaren hazkunde mugatzen jarraitzen dute 2021aren hasieratik
 - Meatze-proiektu berriek Kongoko Errepublika Demokratikoko ekoizpena bultzatuko dute 2021-2022an.
 - Txinak milioi bat tona gehiagoko galdaketa-gaitasuna izango du 2021-23 epealdian
- **Prezioak.** Inoiz ez bezalako moneta eta zerga-pizgarrien maila altuek gorakada handiak eragin dituzte oinarriko metal gutzien prezioetan. Ondorioz, kobrearen prezioak gora egin du gogor, 2020ko martxoaren 19ko minimo



historikotik (4.353,8 dolar tonako) iragan 2021eko maiatzaren 10eko maximora (10.748,5 dolar tonako). Uste da kobrearen prezioak jaitsi egingo direla epe laburrean, eta batez beste tonako 9.145 dolarrean geratuko direla 2021eko bigarren sei hilekoan. Halere, kalkuluen arabera, 2023an prezioa berriro igoko da eskasia larri baten erdian: tonako 10.000 dolarretik gora batez beste.

Kobrearen eskaera eta hornikuntza

Mila tona	2019	2020	2021	2022	2023
Ekoizpena	23467	23941	24427	24949	25535
Kontsumoa	24005	24832	24765	25264	25739
Balantzea	-538	-891	-338	-315	-204

Iturria: Basque Trade & Investment agentziak egina, WBMS, EIU-ren informazioa oinarritzat hartuta.

Kautxu naturala

- **Eskaera.** Kalkulatu da kautxu naturalaren mundu mailako erabilpena %4,9 haziko dela 2021ean, eta hazkundera %3,5era jaitsiko dela 2022an. Arrazoi nagusi batek mugatzen du kontsumoaren hazkundera potentziala: ibilgailuen ekoizpena oso motel ari da hazten, automobilgintza sektorean gertatzen ari den mundu mailako erdi-eroaleen eskasiagatik. Gainera, litekeena da beste hainbat faktorek ere eragina izatea kautxuaren aurtengo esportazioetan, esaterako, besteak beste, edukiontzien eskasiak mundu mailako logistikan eragiten dituen gorabeherak, portuetako atzerapenak eta itsasoratze-prezio altuak. Kontuan hartzeko:
 - Txinako kontsumoaren hazkundera moteldu egingo da datozen hilabeteetan
 - Indiako kontsumoak gorakada bat izan beharko luke 2021eko bigarren erdian
 - EBko eskaera berriro suspertu beharko litzateke 2021eko bigarren sei hilekoan
- **Hornikuntza.** Munduko ekoizpenaren hazkundera aurreikuspenak %3,4raino murriztu dira 2021ean, Delta aldaerak Asia hego-ekialdeko herrialde ekoizle garrantzitsuenetan izan duen hedapenagatik. Itxialdiek eta gaueko etxeratzetzailek egiten dituzte erauzketa-lanak eta eskulanaren eskasia dakarte eskulan hori ezinbestekoa duten herrialdeetan. Uste da 2022ko hazkundera handixeagoa izango dela, %3,3rainokoa. Kontuan hartzekoak:
 - Thailandiako ekoizpenak gora egin behar luke, prezioen gorakadak bultzatuta
 - Prezioak lehengora itzuli ondoren Indonesiak gai izan behar luke bere ekoizpena handitzeko 2022an
 - Indiako ekoizpenak suspertzen hasi behar luke 2021eko bigarren sei hilekoan.

Kautxu naturalaren eskaera eta hornikuntza

Mila tona	2019	2020	2021	2022	2023
Ekoizpena	13702	13008	13455	13893	14147
Kontsumoa	13640	12709	13335	13800	14140
Balantzea	62	299	120	93	7

Iturriak: Basque Trade & Investment agentziak egina, WBMS, London Metal Exchange (LME), International Aluminium Institute (IAI) eta The Economist Intelligence Unit-en informazioa oinarritzat hartuta.

- **Prezioak:** Urtea nahiko prezio apalekin hasi ondoren, 2021eko otsailean berriro egin zuten gora, petrolioaren prezioek izandako gorakada itzelari esker. Hala ere, urtearen bigarren hiru hilekoan berriro apaldu ziren, eta ondoren berriro igo, Covid-19aren Delta aldaerak Asia hego-ekialdean izandako zabalkunde azkarraren ondorioz. Aurreikuspenak da prezioak, oro har, egonkor mantenduko direla urtearen bigarren erdian, besteak beste petrolioaren prezioek nahiko goian jarraituko dutelako.

Altzairua

- **Eskaera.** Hazkunde ekonomiko globala indartsua eta sinkronizatua izango da 2021ean, bi arrazoi nagusigatik: AEBek eta, haiekin batera, EBk, Japoniak nahiz Hego Koreak ekonomia akuilatzeko martxan jarri dituzten aparteko neurriengatik, eta baita ere Txinak izan duen hazkunde jarraituarengatik. Horrek guztiak eragina izan du altzairuaren mundu mailako kontsumoaren gorakadan, eta kalkulatu da hazkundera %74koa izango dela urtearen amaierarako, 2.000 milioi tonako muga gaindituz lehen aldiz 2021ean. Aurrera begira, espero da altzairuaren mundu mailako kontsumoak hazten jarraituko duela 2022-23 epealdian, nahiz eta hazkunde-tasa motelago batekin, %2-3 ingurukoa. Kontuan hartzekoak:
 - Txinaren altzairu eskaera goraka doa nabarmen



- Asiako gainerako herrialdeetan ere altzairu eskaera berriro goratu da 2021ean
 - AEBen altzairu kontsumoa berroneratu egin da 2021ean, eta espero da handitzen jarraituko duela 2022an ere
 - Europako kontsumoa motelago suspertuko da merkatu garrantzitsuenetan.
- **Hornikuntza.** Altzairuaren Munduko Elkarteak emandako azken datuen arabera, altzairu gordinaren ekoizpenak urte arteko %12ko hazkundea izan zuen 2021eko urtarrila eta uztaila artean. 2021 osoa kontuan hartuz gero, kalkulatu da ekoizpen hori %10 inguru haziko dela, lehen aldiz iritsi arte 2.000 milioi tona ekoizten mugaraino, altzairuaren prezio altuak eta fabrikatzaileen marjina handiak akuilatuta. Aurreikusten da datozen urteetan ekoizpenaren hazkundea kolpez motelduko dela, %3an kokatuz 2022an eta %2an 2023an. Kontuan hartzekoak:
 - Txinatik kanpo, altzairu gordinaren ekoizpena azken hamar urteetako maila baxuenera iritsi zen 2020an
 - India eta Estatu Batuak altzairua ekoizteko duten gaitasuna handitzen ari dira
 - Burdin mineralaren prezioak bikoiztu egin ziren 2020an, baina orain goia jo dute edo handik hurbil daude.

Altzairuaren eskaera eta hornikuntza

Mila tona	2019	2020	2021	2022	2023
Ekoizpena	1880,00	1867,00	2058,00	2114,00	2150,00
Kontsumoa	1889	1892	2032	2093	2138
Balantzea	-9	-25	26	21	12

Iturria: Basque Trade & Investment agentziak egina, WSA, EIU-en informazioa oinarritzat hartuta.

- **Prezioak:** Altzairuaren prezioek behera egin zuten 2019an, eta beherantz jarraitu zuten 2020aren hasieran ere, pandemia gogortu ahala eskaera murriztu egin zelako. Hala ere, beherakada hori laburra izan zen, altzairugile askok berehala erabaki zutelako ekoizpena murriztuz erantzutea eskaeraren beherakadari eta garai hartako ziurgabetasun handiari. Harrezkero, prezioek gora egin dute munduko merkatu guztietan, aurrena altzairuaren eskaerak Txinan izan zuen gorakada azkar eta sendoak bultzaturik, eta ondoren gainerako altzairu kontsumitzaile handien suspertze ekonomikoagatik.

2021eko lehen hiruhilekoan, altzairuaren prezioak %30-90 hazi ziren aurreko urtearen aldean (produktuaren eta merkatuaren arabera), eta bigarren hiruhilekoan gorakada %10-50ekoa izan zen. Gorakada handienak Estatu Batuetan gertatu dira (eskaera gogor suspertu da han, eta muga-zergak oztopo dira inportazioentzat), prezioak maximo historikoetara iristeraino; konparazio batera, beroan laminatutako bobinen prezioak tonako 2.000 dolarreko prezioa gaitu zuen. Altzairuaren prezioak azken urteetako handienak izan dira orobat Asian eta Europan. Badirudi prezioen gorakada hori ahultzen ari dela urtearen bigarren hiruhilekoan, eta uste da prezio horiek behera egiten hasiko direla eskaera desazeleratu eta altzairuaren ekoizpena handitu ahala.




I. Eranskina. Lehengaien prezioak banan-banan

Lehengaien prezioak banan-banan

Produktua	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024	2025
Kautxua (US\$/tona)	1857,00	2293,00	1757,00	1864,00	1766,00	2125,00	1973,00	1878,00	2067,00	21,00
Kotoia (US zentimo/libra)	74,20	83,60	91,40	77,90	71,90	95,00	93,60	90,70	80,00	79,00
Artilea (Aus zentimo/kg)	1277,00	1283,00	1244,00	1232,00	1195,00	1191,00	1195,00	1195,00	1195,00	1195,00
Aluminioa (US\$/tona)	1604,00	1968,00	2111,00	1791,00	1702,00	2326,00	2158,00	1981,00	19,00	194,00
Kobrea (US zentimo/libra)	220,50	279,50	296,10	272,30	279,80	413,80	432,00	461,20	379,00	386,00
Beruna (US zentimo/libra)	84,90	105,00	101,80	90,60	82,70	100,90	102,40	96,80	96,00	98,00
Nikela (US\$/libra)	4,35	4,72	5,96	6,31	6,25	8,05	8,61	9,21	8,80	8,70
Eztainua (US\$/libra)	8,16	9,11	9,14	8,46	7,77	13,06	13,04	12,62	10,70	10,50
Zinka (US cents/libra)	94,90	131,20	132,70	115,60	102,60	128,40	124,60	133,70	116,00	112,00
Burdin minerala (\$/tona, lehorreko metrika)	58,40	71,80	69,80	93,80	108,90	184,50	164,80	146,70	150,00	145,00
Altzairua (US\$/tona)	433,30	599,20	657,10	501,50	486,50	792,50	703,80	661,70	597,00	610,00
Urrea (US\$/ontza)	1249,00	1258,00	1269,00	1392,00	177,00	1783,00	1598,00	1462,00	145,00	1475,00
Paladioa (US\$/ontza, London)	618,00	874,40	1034,40	1542,40	2204,60	2667,30	2317,50	2085,00	2075,00	1990,00
Platinoa (US\$/ontza)	987,00	948,00	880,00	864,00	883,00	113,00	1119,00	11,00	1175,00	1205,00
Zilarra (US zentimo/ontza)	1715,00	1707,00	1571,00	1622,00	2054,00	2596,00	2308,00	2112,00	23,00	228,00
DAP (\$/tona)	315,80	323,00	393,40	306,40	300,80	565,00	525,00	425,00	420,00	420,00
Fosfato harkaitza (\$/tona)	110,50	89,70	87,90	88,00	76,10	100,00	90,00	99,00	103,00	105,00
Petrolio: Brent (US\$/upela)	44,00	54,40	71,10	64,00	42,30	68,50	71,00	65,50	61,00	55,50
Petrolio: LPEEren erreferentziazko prezioa (US\$/upela)	40,10	51,60	66,90	60,20	39,80	64,40	66,80	61,60	57,40	52,20
Petrolio: WTI (US\$/upela)	43,20	50,90	64,80	57,00	39,30	66,00	70,30	66,50	61,90	56,30
Gas naturala (US\$/milioi BTU, Europe)	4,56	5,72	7,68	4,80	3,24	8,67	7,19	5,24	4,90	5,00
Gas naturala (US\$/milioi BTU, US)	2,49	2,96	3,16	2,57	2,02	3,43	3,24	3,08	3,20	3,30
Gas natural likidotua (US\$/milioi BTU, JPN)	7,37	8,61	10,67	10,57	8,31	9,36	9,85	9,28	7,75	7,80
Ikatza (US\$/tona, Australia)	66,10	88,50	107,00	77,90	60,80	108,60	78,50	63,70	60,00	56,00

Iturriak: Basque Trade & Investment agentziak egina, WBMS, London Metal Exchange (LME), International Aluminium Institute (IAI) eta The Economist Intelligence-en informazioa oinarritzat hartuta.



Agencia Vasca de Internacionalización
Nazioartekotzeko Euskal Agentzia



Urkixo
Zumarkale
a, 36-5
Planta
Plaza
Bizkaia
Eraikina
48011
Bilbao
info@basq
uetrade.eu
s
(+34) 94
403 71 60

